En las comisiones de marzo preguntamos al concejal delegado sobre este tema y nos explicó que se trata de una feria muy orientada al mercado y que el principal objetivo es que las compañías vascas muestren su trabajo a programadores externos, y que, precisamente por ese motivo, muchas de ellas deciden hacer representaciones en castellano.

Además, se ha llegado a la conclusión de que en los últimos años dFeria ha estado muy orientada al mercado, que está alejada de la ciudadanía, y por este motivo se está intentando revertir la situación, ampliando la

oferta al público local.

Beraz honekin zer esan nahi du zinegotzi arduradunak, soilik gaztelerazko eta nazioarteko merkatura bideratutako feria bat dela? Ez al daude euskal programatzaileak eta euskal konpainiak? Feria honetan euskaraz soilik antzezten duten antzezlanak egotea beharrezkoa ikusten dugu eta merkatura salto egiteko aukera ematea ere.

¿Qué quiere decir con esto el concejal delegado, que se trata de una feria orientada exclusivamente al mercado castellanoparlante e internacional? ¿Acaso no existen programadores y compañías teatrales vascas? Vemos necesaria la presencia de obras de teatro que se representan exclusivamente en euskera en esta feria, de forma que tengan la posibilidad de saltar al mercado.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari dFerian programatutako euskarazko antzezlan kopurua handitzea eta euskarazko antzezlanei merkatura salto egiteko aukera balia dezala.

- La Corporación Municipal insta al Gobierno Municipal a incrementar el número de obras de teatro en euskera programadas en dFeria y que esta feria sea una oportunidad para que las obras de teatro en euskera salten al mercado.

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari dFerian programatzen diren antzezlanetan euskarazko azpitituluak jartzeko aukera azter dezan.

- El Pleno de la Corporación insta al Gobierno Municipal a que estudie la posibilidad subtitular en euskera las obras de teatro que se programen en dFeria.

Donostian, 2025eko martxoaren 20an

San Sebastián, 20 de marzo de 2025

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Itziar Iturri Arrazola
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Itziar Iturri Arrazola andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Itziar Iturri Arrazola, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 20 – (8) EAJ/PNV, (7) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 20 – (8) EAJ/PNV, (7) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**6. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**II.2.7. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, munduko futbol txapelketa Donostiako turismo-politikarekin doitzeko balizko aukerei buruzkoa.**

**II.2.7. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre las posibles opciones de adecuar el campeonato del mundo de fútbol a la política turística de San Sebastián.**

“Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko martxoko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2024ko abenduan baieztatu zen Donostia 2030eko munduko futbol txapelketaren egoitzetako bat izango dela. “San Sebastián alcanza este hito de enorme importancia tras una larga carrera en la que diversas ciudades han peleado por ser sede mundialista”, irakur zitekeen Donostia Kirola Erakunde Autonomoaren webgunean. Ildo beretik mintzatu zen Kiroletako zinegotzi Iñaki Gabarain Udalaren webgunean: “Benetako mugarria da Donostiako kirolarentzat eta gure hiri osoarentzat (...) eta Donostiak lortu du Realak eta erakundeek elkarrekin egindako lan bikainari esker, Udala buru dela”.

Esan beharrik ez dago nolako jendetza mugitzen duen lehiaketa honek, munduko kirol ekitaldi turistiko handiena bihurtu dena. Hori horrela izanik, ezinbestekoa da albistea hiriak bizi duen testuinguruan kokatzea. Izan ere, Donostiako Udalak 2023-2027 aldirako onartutako Turismo Planak argi adierazten du “sustapen masibotik aldendu” behar dela, helburua ez baita “bisitari kopurua handitzen jarraitzea”, eta donostiarren gehiengoa iritzi berekoa da. Aipatu plana ontzeko, turismoak Donostian duen eraginaren diagnostiko bat egin zuen *Ikertalde* ikerketa taldeak, Udalak berak eskatuta. Azterlan horren

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas de marzo de 2025.

JUSTIFICACIÓN

En diciembre de 2024 se confirmó que San Sebastián será una de las sedes del Campeonato Mundial de Fútbol de 2030. "San Sebastián alcanza este hito de enorme importancia tras una larga carrera en la que diversas ciudades han peleado por ser sede mundialista", se podía leer en la página web del Organismo Autónomo Donostia Kirola. El concejal delegado de Deportes, Iñaki Gabarain, se pronunció en la misma línea en la página web del Ayuntamiento: “Se trata de un verdadero hito para el deporte donostiarra y para el conjunto de nuestra ciudad. (…) y San Sebastián lo ha conseguido gracias al gran trabajo realizado conjuntamente por la Real Sociedad y las instituciones, con el Ayuntamiento a la cabeza”.

Todos sabemos la cantidad de gente que mueve esta competición, ya que se ha convertido en el mayor evento deportivo-turístico a nivel mundial. En este sentido, es imprescindible situar esta noticia en el contexto que vive la ciudad. Concretamente, el Plan de Turismo 2023-2027 aprobado por el Ayuntamiento de San Sebastián señala claramente la necesidad de "alejarse de la promoción masiva", ya que el objetivo no es "seguir aumentando el número de visitantes", y la mayoría de la población donostiarra comparte esta visión. Para la elaboración del

emaitzak 2023an aurkeztu ziren, eta, orduan, donostiarren %65ek uste zuten hirian "turismo saturazio handia" zegoela, hau da, bisitarien kopuruak goia jo zuela Donostian. Urtebete geroago, 2024ko irailean, *Datakey Institutua*k Estrategia Bulegoaren eskariz egindako Herritarren Pertzepzioari buruzko Inkestaren emaitzak ezagutu genituen, eta bertan, besteak beste, donostiarren %82,3k adierazi zuen Donostia mugara iritsia zela turismoa erakartzeko orduan.

citado Plan, el grupo de investigación *Ikertalde* realizó un diagnóstico del impacto del turismo en San Sebastián, a petición del propio Ayuntamiento. Los resultados de este estudio fueron presentados en 2023, y por aquel entonces, el 65% de la población donostiarra consideraba que había “gran saturación turística” en la ciudad; es decir, que el número de visitantes había tocado techo. Un año más tarde, en septiembre de 2024, conocimos los resultados de la Encuesta de Percepción Ciudadana realizada por el *Instituto Datakey* a petición de la Oficina de Estrategia, en la que, entre otros, el 82,3% de la población donostiarra señaló que Donostia había llegado a su límite a la hora de atraer turismo.

Donostia 2030erako Munduko Txapelketaren egoitzetako bat izateak, beraz, talka egiten du indarrean dagoen turismo-planaren helburuekin.

El hecho de que San Sebastián sea una de las sedes del Mundial de 2030 choca, por tanto, con los objetivos del plan de turismo vigente.

Planaren helburua turismo-eredu jasangarri bat garatzea da, eta, horretarako, azpimarratzen du lehentasuna ez dela bisitari kopurua, kalitatea baizik. Baina planak berak adierazten duen bezala, ez dago kalitatezko turismorik helmugako baliabideen erabilera turistikoa ondo araututa ez badago, espazio publikoari eta ostatuari aipamen berezia eginez. Bada, turismo ostatuei dagokionez, ostatatze-eskaintza arautzea da planak nabarmentzen duena, “denak ez baitu balio”. Eta eskaintza hori arautzeko neurriak, hartu bai, batzuk hartu dira. Adibidez, hiriko eremu berriak hotelez saturatutzat joko dituen Plan Orokorraren aldaketa, baldin eta turismo-ostatuek eremu horretako etxebizitza-eskaintza osoaren ehuneko jakin bat gainditzen badute. Eta saturazio edo mugaketa hori justifikatu da 100 biztanleko 10 plaza turistikoren indizea gainditzen duenean. Bada, adierazle honen arabera, 2024an Donostia osoko batez bestekoa 9,91 turismo-plaza da 100 biztanleko.

El objetivo de dicho plan es desarrollar un modelo turístico sostenible, y para ello subraya que la prioridad no es el número de visitantes sino la calidad. Pero, tal y como señala el propio plan, no existe un turismo de calidad si el uso turístico de los recursos del destino no está bien regulado, haciendo mención especial al espacio público y al alojamiento. Pues bien, en lo que se refiere a los alojamientos turísticos, el Plan destaca la regulación de la oferta de alojamiento, "porque no todo vale". Concretamente, se han adoptado algunas medidas para regular esta oferta: por ejemplo, la modificación del Plan General, de modo que considere las nuevas zonas de la ciudad como zonas saturadas de actividades hoteleras, siempre que los alojamientos turísticos superen un determinado porcentaje de la oferta total de viviendas de la zona. Y esta saturación o limitación se justifica cuando supera el índice de 10 plazas turísticas por

cada 100 habitantes. Según este indicador, en 2024, la media para el conjunto de San Sebastián fue de 9,91 plazas turísticas por cada 100 habitantes.

Eta hona hemen kezka. Nazioarteko Futbol Federazioak (FIFA) hautagai-zerrendari buruzko txosten bat eman zuen ezagutzera, proposatutako egoitza bakoitzaren egokitasuna zehatz mehatz ebaluatuz. Bada, hamazazpi hautagaien artean, Donostia da ostatatzeari dagokionez puntuaziorik txarrena lortu duen hiria, gaur egun Donostian dagoen ostatu-plaza kopurua “ez dela nahikoa izango” ohartaraziz. Hau da, antolatzaileek aurreikusi dute ekitaldiak Donostiaren ostatu-ahalmena gaindituko duela. Kontua da ostatatzea arautzeko Udal Gobernua gaur-gaurkoz bultzatzen ari den ekimenek ez dutela ziurtatzen gaurtik 2030era hirian turismo-ostatu berririk egongo ez denik, eta, beraz, FIFAren txostenaren errekerimenduari kasu eginez gero, Plan Orokorraren azken aldaketan proposatutako eragin-indizea gainditzeko arriskua dagoela.

Nuestra inquietud es la siguiente: la Federación Internacional de Fútbol (FIFA) hizo público un informe sobre las candidaturas, evaluando detalladamente la idoneidad de cada sede propuesta. De las diecisiete candidatas, San Sebastián es la ciudad que peor puntuación ha obtenido en cuanto a alojamiento, advirtiendo que el número de plazas de alojamiento actualmente existentes en San Sebastián "no será suficiente". Es decir, los organizadores prevén que el evento supere la capacidad alojativa de San Sebastián. Lo cierto es que las iniciativas que actualmente se están impulsando desde el Gobierno Municipal para regular el alojamiento no garantizan que no haya nuevos alojamientos turísticos en la ciudad desde hoy hasta 2030, por lo que atendiendo al requerimiento del informe de la FIFA se corre el riesgo de superar el índice de impacto propuesto en la última modificación del Plan General.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo lo expuesto, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, ostatuei buruzko Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketan jasotako adierazlea kontutan hartuta, berretsi dezala eragin-indize hori ez gainditzeko konpromisoa.

1.- El Pleno de la Corporación insta al Gobierno Municipal a que, teniendo en cuenta el indicador que se recoge en la modificación del Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián relativo a alojamientos, ratifique el compromiso de no superar dicho índice de impacto.

Donostian, 2025eko martxoaren 21ean

San Sebastián, 21 de marzo de 2025

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Victor Lasa Briz jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Markel Ormazabal Gaztañaga, D. Victor Lasa Briz, D. Borja Corominas Fisas y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 22 – (8) EAJ/PNV, (7) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 22 – (8) EAJ/PNV, (7) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.8. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, Udaltzainen kontratazioari buruzkoa.**

"Jabier Vitoria Roma EH BILDU udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluaren babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, 2025eko martxoaren 17ko Zerbitzu Orokorren Batzordean aurkeztutako INTERPELAZIOAREN ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Azken aste eta hilabete hauetan, udaltzainak kontratatzeko formularik egokienari buruzko

**II.2.8. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, en relación a la contratación de la Guardia Municipal.**

"Jabier Vitoria Roma, concejal del Grupo municipal EH BILDU, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la INTERPELACIÓN presentada en la Comisión de Servicios Generales del 17 de marzo de 2025.

JUSTIFICACIÓN

En estas últimas semanas y meses asistimos un debate sobre la fórmula más adecuada para

eztabaida izan dugu EAEko hainbat herri eta hiritan.

Udaltzaingoko langileen ordezkariek behin baino gehiagotan agerian jarri dituzte alderdi horien inguruko gabezia batzuk, langileak hautatzeko eredua, Arkautetik erabat egiten dena, aldatu delako.

Lan-alderdiak konpontzen laguntzeaz gain, gure toki-administrazioak bultzatutako Enplegu Publikoaren Eskaintza batek bermatuko luke, besteak beste, gure hiria (kale-izendegia, udal-ordenantzak...) eta euskara komunikazio-bide gisa ondo ezagutzea. Horrek guztiak gure hiriaren irudi hobea eta kalitatezko eta donostiarrengandik hurbilago dagoen zerbitzua ematen lagunduko luke.

Herritarrei gertuko zerbitzu bat eskaini nahi badiegu eta nahi ez diren egoerak ekidin nahi badira, uste dugu udaltzain horiek kontratatzeko prozedura birplanteatzea izan daitekeela gakoa.

Mozio honekin ez da zalantzan jartzen prestakuntza Arkautek egin behar izatea, baizik eta tokiko agente funtzionarioen beharrak betetzeko eta behin-behineko premiei erantzuteko lan-poltsa bat eratzeko lan-eskaintza publikoa Donostiako Udalak berak egitea.

Azaldutako guztiagatik, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

1.- Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio azter ditzala Udalak berak kudeatutako EPE propio bat bultzatu eta onartzeko aukera ematen duten legezko formula

la contratación de guardias municipales en diferentes pueblos y ciudades de la CAPV.

Representantes de los y las trabajadoras de la guardia municipal han cuestionado en diferentes ocasiones algunas carencias a raíz del cambio en el modelo de selección del personal realizado enteramente desde Arkaute.

Además de contribuir en la solución de aspectos laborales, una Oferta Pública de Empleo impulsada desde nuestra administración local garantizaría, entre otros, un buen conocimiento de nuestra ciudad (callejero, ordenanzas municipales…) y del euskara como vehículo de comunicación, aspectos que redundan en dar una mejor imagen de nuestra ciudad y un servicio de calidad y más cercano a los y las donostiarras.

Es fundamental, si queremos ofrecer un servicio de proximidad a la ciudadanía, que se eviten estas situaciones no deseadas, y pensamos que la clave puede estar en replantearse el procedimiento por el que se contratan estos y estas guardias.

Con esta moción no se cuestiona que la formación se tenga que realizar desde Arkaute sino que la OPE para la cobertura de las necesidades de agentes locales funcionarios y para la constitución de una bolsa de trabajo para atender necesidades eventuales la haga el propio Ayuntamiento de Donostia.

Por todo lo expuesto presentamos esta MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Ayuntamiento en Pleno insta al Equipo de Gobierno a que estudie todas las fórmulas legales que permitan impulsar y aprobar una OPE propia, gestionada desde el propio

guztiak, Udaltzaingoan kontratazio finkoak eta behin-behinekoak egiteko sortzen diren premiei erantzuteko.

Donostian, 2025ko martxoaren 21a

Sin.: Jabier Vitoria Roma
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Ayuntamiento, para responder a las necesidades de contrataciones tanto fijas como eventuales en la Guardia Municipal.

San Sebastián, 21 de marzo de 2025

Fdo.: Jabier Vitoria Roma
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Jabier Vitoria Roma jaunak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Martin Ibabe Eceiza jaunak eta Arantza González García andreak parte hartu dute puntu honetan , Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Jabier Vitoria Roma, D. Jorge Mota Iglesias, D. Martin Ibabe Eceiza y D.ª Arantza González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (7) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (7) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.9. Kontrol Mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Soldadu Plazari buruzkoa.**

"Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Soldadu plazari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

**II.2.9. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre la Plaza de los Soldados.**

"Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre

Plaza de los Soldados.

JUSTIFIKAZIOA

Soldadu plazako etxabeetan arazo asko sortzen ari dira bizilagunekin. Lokal asko okupatuta daude, etxabeen parte handi batean ez dabil argiteria, eta, duela gutxi, lokal horietako batzuk legez kanpo okupatuta dauzkatenek hainbat sute eragin dituzte. Etxabe horiek leku osasungaitz eta ez-seguru bihurtu dira, eta horrek arrisku larrian jartzen ditu hala bizilagunak nola bertan bizi direnak. Ez dago sute-ahorik, eta ia ez dago aireztapenik, ezta argiztapenik ere.

JUSTIFICACIÓN

Los bajos de la Plaza de los Soldados están generando muchos problemas con los vecinos. Muchos de sus locales están ocupados, el alumbrado no funciona en buena parte de los bajos, se han producido recientemente varios incendios provocados por las personas que ocupan de manera ilegal algunos de los locales. Esos bajos se han convertido en un lugar insalubre e inseguro que pone grave peligro tanto a los vecinos como a las personas que ahí viven. No hay hidrantes, y apenas hay ventilación ni iluminación.

Duela urte batzuk arte, ate batek mugatzen zuen Soldadu plazako etxabeetarako sarbidea. Udalak bizilagunei esan zienez, kendu egin zuten, konpontzeko. Ez dute inoiz berriz jarri.

Hasta hace unos años había una puerta que limitaba el acceso a los bajos de la plaza de los Soldados. Se retiró, según dijo el Ayuntamiento a los vecinos, para repararla. Nunca se volvió a instalar.

Hori dela eta, hau da gure

Estas son las razones por las que presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio ate nagusi bat jar dezala Soldadu plazako etxabeetara sartzeko, saltokietakoak eta lokaletakoak ez diren eta bertan garatzen den jarduerarekin zerikusirik ez duten pertsonek sartzeko modurik izan ez daitezen.

2. Donostiako Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio Soldadu plazako mantentze-lanak hobetzeko.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a instalar una puerta principal en la entrada a los bajos de la plaza de los Soldados que evite que personas ajenas a los comercios y locales, y a la actividad que ahí de desarrolla, puedan acceder.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a mejorar el mantenimiento de la plaza de los Soldados.

10740n XVII

Donostia, 2025eko martxoaren 21a

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularreko Udal Taldeko bozeramailea".

En San Sebastián, a 21 de marzo de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular".

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Carlos Garcia Hernandez jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Borja Corominas Fisas, D. Carlos García Hernández y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**9. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 7 – EH BILDU (1, UDALBATZA ARETOAN EZ EGOTEAGATIK).**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 7 – EH BILDU (1, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA).**

**9. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, UDALBATZA ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.10. Kontrol Mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Manteori buruzkoa.**

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluaren babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Manteori buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 27an, hainbat hilabetez horren inguruko eskaerak egin ondoren, kezkatuta, Manteoko bizilagunak auzoan bildu ziren, Xabier Zubiri BHIren ondoan dagoen kokagunea hustea eskatzeko.

Manteoko bizilagunak, Donostiako beste bizilagun asko bezala, Udalaren babesik gabe eta alde batera utzita sentitzen ziren. Talde politiko guztiekin jarri ziren harremanetan, baina PPk bakarrik erantzun zuen. Elkarretaratzera joan ginen eta, hurrengo egunean, kokagunera joan ginen eta bertako biztanleen egoera eta auzoan sortzen zituzten arazoak salatu genituen.

Bizilagunek mobilizatzea erabaki zuten, eta

**II.2.10. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre Manteo.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre Manteo.

JUSTIFICACIÓN

El 27 de febrero, tras meses de peticiones y preocupación, los vecinos de Manteo se concentraron en su barrio para pedir el desalojo del asentamiento junto al IES Xabier Zubiri.

Los vecinos de Manteo, como muchos otros vecinos donostiarras, se sentían indefensos e ignorados por parte del Ayuntamiento. Se pusieron en contacto con todos los grupos políticos pero sólo el PP respondió. Acudimos a su concentración y, al día siguiente, fuimos al asentamiento y denunciamos la situación en la que vivían sus habitantes y los problemas que generaban en el barrio.

Los vecinos decidieron movilizarse, y su

haien mobilizazioak arrakasta izan du. Martxoaren 20an, lehen aldiz elkartu eta hilabetera, Udalak Manteoko kokagunea hustu zuen.

movilización ha tenido éxito. El 20 de Marzo, un mes después de su primera concentración, el Ayuntamiento desalojó el asentamiento de Manteo.

Argi dago gobernu-taldeak nahi badu, posible dela. Komenigarria litzateke beren auzoetan kokaguneak daudelako kezkatuta dauden donostiarrek Manteoko bizilagunen eredua jarraitzea.

Parece evidente que si el Equipo de Gobierno quiere, se puede. Sería conveniente que todos los vecinos donostiarras preocupados por la presencia de asentamientos en sus barrios siguieran el ejemplo de los vecinos de Manteo.

Hori dela eta, hau da gure

Estas son las razones por las que presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio, Manteoko kokaguneko adibidea jarraituz, Donostiako udalerrian legez kanpo diren kokagune guztiak hustu ditzala.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a desalojar, siguiendo el ejemplo del asentamiento de Manteo, la totalidad de los asentamiento ilegales en el término municipal de Donostia-San Sebastián.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte-zerbitzuekin batera koordina dezala kokagune horietako bizilagunen arreta.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a coordinar, junto a los servicios sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la atención de sus moradores.

3. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio aplika ditzala gizabideari, bide publikoen erabilerari, garbitasunari eta hiri-paisaiaren babesari buruzko ordenantzaren 14B eta 34. artikuluak, bai eta bertan jasotako zehapen-araubidea ere.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a aplicar los artículos 14B y 34 de la ordenanza de civismo, uso y limpieza de la vía pública y la protección del paisaje urbano, y el régimen sancionador contemplado en la misma.

Donostian, 2025eko martxoaren 21ean

En San Sebastián, a 21 de marzo de 2025

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularreko Udal Taldeko bozeramailea”.

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Victor Lasa Briz jaunak, Izar Hernando Ibero andreak eta eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D. Victor Lasa Briz, D.ª Izar Hernando Ibero y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 22 – (8) EAJ/PNV, (7) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 22 – (8) EAJ/PNV, (7) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.11. Kontrol Mozioa, EH Bildu Taldeak aurkeztua, hiriko eskoletako patioak irekitzeari buruzkoa.**

“Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko martxoaren 17an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Eskolak hiriko ekipamendu gisa hartuta, auzoz-auzo espazio ugari irabazi ditzakete Udalak eta auzotarrek. Zentzu horretan,

**II.2.11. Moción de Control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la apertura de los patios de las escuelas de la ciudad.**

“Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada el 17 de marzo de 2025 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Si consideráramos los centros escolares como equipamiento urbano, el Ayuntamiento y la ciudadanía ganarían mucho espacio en los

asteburuetan eskola publikoetako (edo behintzat, batzuetako) patioak irekitzeko aukerarekin haur zein nerabeak jolasteko eta babestuta egoteko eremu asko lor daitezke. Gurasoen aburuz, haurrentzat ezaguna den eta segurutzat duten gunea da eskola, eta bertan lasai egoten dira asteburuetan ere. Egia da, jada lau eskolatan patioa asteburuetan irekita mantentzeko egitasmoa martxan dela, ikastorduez harago auzoari espazioa eskainiz Egiako Aitor Ikastolan, Martuteneko Arantzazu Ikastolan, Igeldoko Herri Eskolan eta Añorgako Amassorrainen.

diferentes barrios de la ciudad. En efecto, la apertura de los patios de los centros escolares públicos (o, al menos, de algunos de ellos) durante el fin de semana permitiría obtener mucho espacio donde poder jugar y cobijarse, tanto para niños y niñas como para adolescentes. Padres y madres consideran que el centro escolar es un espacio conocido y seguro para los niños y niñas, en el que están tranquilos, también los fines de semana. En la actualidad, hay cuatro centros en los que ya está en marcha el proyecto de mantener el patio abierto los fines de semana, con el propósito de ofrecer un espacio al barrio más allá del horario lectivo. Estos centros son la ikastola Aitor en Egia, la ikastola Arantzazu en Martutene, la Herri Eskola en Igeldo y la ikastola Amassorrain en Añorga.

Gai honetan kontutan hartu beharreko elementua da hirian dugun gune eta parke estalien falta. Izan ere, oso gutxinaka goaz auzoetan eremu estaliak irabazten. Bide horretan, eskoletako patioek ekarpen handia egin dezaketela uste dugu. Gutxienez, hirian auzoka edo guneka ireki daitezkeen eskola publikoen mapa osatu, eta horiek ireki daitezen iniziatiba hartzea urrats polita litzateke. Iniziatibaz ari garenean, irekita mantenduko diren patioei kalte ahalik eta gutxien eragiteko bermeak emateaz ere ari gara. Zentzu horretan, garbiketa indartzeaz gain, gauez eskolak itxiko direla bermatzea ere garrantzitsua da.

El elemento que se ha de tener en cuenta en esta cuestión es la carencia que presenta la ciudad en cuanto a espacios y parques cubiertos, ya que vamos ganando zonas cubiertas en los barrios muy lentamente. En este sentido, creemos que los patios de los centros escolares pueden aportar mucho. Por lo menos, sería un buen paso que se tomara la iniciativa de elaborar un mapa de los centros públicos que se podrían abrir en cada barrio o zona de la ciudad y proceder a su apertura. Cuando hablamos de iniciativa, también nos referimos a que se ofrezcan garantías para que los patios que permanezcan abiertos sufran las menos afecciones posibles. En este sentido, además de reforzar la limpieza, es importante garantizar el cierre de los centros durante la noche.

Badakigu urrats batzuk eman direla dagoeneko: garbiketa indartu, zenbait patio

Sabemos que ya se han dado algunos pasos, como el refuerzo de la limpieza, el cierre de

gauez itxi… Norabide horretan, iniziatibaz, gaur-gaurkoz itxita egoten diren beste eskolekin harremanetan jarri, eta patioak irekitzeko egitasmoa zabaltzea du oinarrian kontrol mozio honek. Grosen, Amara Berrin, Antiguan, hiriko ekialdean… asteburuetan estalitako gune falta nabaria da, eta auzune horietako eskolei proposamena luzatzeak Udaletxearen ardura behar lukeela uste dugu, proposamenak jaso zain egon gabe, bide hau modu ordenatuan eta orekatuan egin dadin.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

• Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari identifikatu ditzala asteburuetan eskolarik irekita ez duten eta parke estalirik ez duten hiriko guneak.

• Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari patioak irekitzeko proposamena luza diezaiela patioak irekitzen ez dituzten eskolei (aurreko puntuan aipatutako identifikazio lanari jarraiki).

• Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari patioak irekita mantentzeko garbiketa eta bestelako babes-neurriekin lagundu dezan.

Donostian, 2025eko martxoaren 20an

algunos patios por la noche... En este sentido, el fundamento de esta moción es impulsar la iniciativa de ponerse en contacto con aquellos centros cuyos patios permanecen cerrados actualmente y extender el proyecto de apertura de patios a estos centros. Es evidente que Gros, Amara Berri, el Antiguo, el este de la ciudad, etc., presentan una falta de espacios cubiertos los fines de semana, y consideramos que extender esta propuesta a los centros de estos barrios debería ser responsabilidad del Ayuntamiento, sin esperar a recoger propuestas, para que este proceso se pueda llevar cabo de forma ordenada y equilibrada.

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL:

• El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que identifique las zonas de la ciudad que no cuenten con un centro cuyo patio permanezca abierto durante el fin de semana ni dispongan de ningún parque cubierto.

• El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que proponga la apertura de patios a los centros escolares cuyos patios permanezcan cerrados (siguiendo el trabajo de identificación mencionado en el punto anterior).

• El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que colabore con la limpieza y otras medidas de protección para poder mantener los patios abiertos.

San Sebastián, 20 de marzo de 2025

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Izar Hernando Ibero andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Iñigo García Villanueva jaunak hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Izar Hernando Ibero, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D. Iñigo García Villanueva, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.12. Kontrol Mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Amara auzoko zebra-bideetako oztopo arkitektonikoei buruzkoa.**

"Talde Popularreko zinegotzi Jorge Mota Iglesiasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Amara auzoko zebra-bideetako arkitektura-oztopoei buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2019az geroztik, behin baino gehiagotan eskatu dugu Irisgarritasun Plan Integral bat egiteko. EAEko udalerri guztiok dugu betebehar hori, eta Eusko Jaurlaritzako

**II.2.12. Moción de Control, presentada por el Grupo PP, sobre las barreras arquitectónicas en los pasos de cebra del barrio de Amara.**

"Jorge Mota Iglesias, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre las barreras arquitectónicas en los pasos de cebra del barrio de Amara.

JUSTIFICACIÓN

Desde 2019 han sido varias las ocasiones en las que hemos solicitado la elaboración de un Plan Integral de Accesibilidad, obligación que tenemos todos los municipios de la CAE y que

Irisgarritasuna Sustatzeko Kontseiluak egindako Irisgarritasun Unibertsalaren Euskal Estrategiaren Proposamenean jasota dago betebehar hori.

Joan den martxoaren 17an egindako Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), Amara auzoan dagoen erabateko irisgarritasun-faltari buruz galdetu genuen, zehazki, zero kotan ez dauden oinezkoen pasabideei buruz.

Espaloiaren eta galtzadaren artean hainbat zentimetroko tartea egotea oztopo bihurtzen da; ondorioz, gehiegitan, gurpil-aulkiek eta taka-takek ezin dute bertatik modu errazean pasa, eta horrek mugikortasun urriko herritarren joan-etorriak zailtzen ditu.

Desnibel hori gainditzeko ahalegina egin behar izateak erorikoak eta lesioak izateko arriskua ere sortzen du. Gainera, horiek bultzatu behar dituztenek –haiek ere adineko pertsonak izaten dira gehienetan– etengabe ahaleginak egin behar izaten dituzte oinezkoen pasabide soil bat gurutzatzeko.

Gai horri buruz galdetuta, zinegotzi ordezkariak batzordean erantzun zigun hiriko Bide Publikoetako Zerbitzu Teknikoak etengabe egiten dituela irisgarritasuna hobetzeko obrak, aurrekontu-partiden arabera.

Duela urtebete baino gehiago esan ziguten Udal Gobernuak Irisgarritasun Plan bat zuela eta, hala ere, Gobernu Taldeak antolaketarik eta plangintzarik gabe jarraitzen du lanean.

Hori dela-eta, hau da gure

recoge la Propuesta de Estrategia Vasca de Accesibilidad Universal elaborada por el Consejo para la Promoción de la Accesibilidad del Gobierno Vasco.

En la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos celebrada el pasado 17 de marzo interpelamos por la falta de accesibilidad total en Amara, en concreto, por los pasos de peatones, que no están a cota cero.

La existencia de un desnivel de varios centímetros entre la acera y la calzada se convierte en un obstáculo que, en demasiadas ocasiones, impide el paso fluido de las sillas de ruedas, andadores, etc... dificultando el desplazamiento de los ciudadanos con movilidad reducida.

El esfuerzo para superar este desnivel representa un riesgo adicional de caídas y lesiones. Además, quienes tienen que empujarlas, habitualmente también personas de avanzada edad, deben hacer continuos esfuerzos para cruzar un simple paso de peatones.

La respuesta que nos dio el Concejal Delegado en comisión al interpelar sobre esta cuestión fue que el servicio técnico de Vías públicas de la ciudad realiza obras de mejora de la accesibilidad constantemente, según partidas presupuestarias.

Hace más de un año nos dijeron que el Gobierno Municipal tenía un Plan de Accesibilidad y, sin embargo, el Equipo de Gobierno sigue actuando a salto de mata, sin organización, ni planificación.

Por estos motivos, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Donostiako Irisgarritasun Plana egin eta/edo argitara dezala.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio irisgarritasunaren arloko ekintza-plan bat zehaztu dezala, kronograma bat eta urte anitzeko aurrekontu bat izango dituena.

3. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio konpromisoa har dezala, legegintzaldia amaitu baino lehen, Amara auzoko oinezkoen pasabide guztiak irisgarri egiteko, horiek zero kotara jaitsiz.

Donostia, 2025eko martxoaren 21a

Jorge Mota Iglesias,
Udal Talde Popularreko zinegotzia".

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a que realice y/o haga público el Plan de Accesibilidad de San Sebastián.

2. El Pleno del Ayuntamiento insta al equipo de gobierno a que defina un plan de acción en materia de accesibilidad, que contenga un cronograma y un presupuesto plurianual.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a que se comprometa a hacer accesibles todos los pasos de peatones del barrio de Amara, rebajándolos a cota cero, antes de que finalice la legislatura.

En San Sebastián, a 21 de marzo de 2025

Jorge Mota Iglesias
Concejal del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Vanessa Velez de Pablos andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Carlos Garcia Hernandez jaunak eta Jabier Vitoria Roma jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Vanessa Vélez de Pablos, D.ª Arantza González García, D. Carlos García Hernández y D. Jabier Vitoria Roma, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**12. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 12 – (7) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 12 – (7) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**12. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 12 – (7) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 12 – (7) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**12. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 12 – (7) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 12 – (7) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUERDIKO ORDU BATA ETA SEI MINUTUAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS TRECE HORAS Y SEIS MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, LA SECRETARIA, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

*(11. Kontrol Moziora arte / Hasta la Moción de Control nº11)*

**ENEKO GOIA LASO**

**BITARTEKO LEHENDAKARIA: / LA PRESIDENTA EN FUNCIONES:**

*(11. Kontrol Moziotik aurrera / A partir de la Moción de Control nº11)*

**NEKANE ARZALLUS ITURRIZA**

**IDAZKARIA: / LA SECRETARIA:**

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

| | |
|---|---|
| **Gai zk. /** Asunto nº | 1 |
| **Mota /** Clase | Akta / Acta |
| **Eguna /** Fecha | 2025/04/30 |
| **Saioa /** Sesión | OHIKOA |

**UDALBATZA** / PLENO

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Berretsia** Ratificado | | **Aho batez** Unanimidad | X | **Aldeko botoak** Votos a favor | |
| **Onartua** Aprobado | X | **Quorum** | | **Aurkako botoak** Votos en contra | |
| **Jakinean** Enterado | | **Gehiengoa** Mayoría | | **Abstentzioak** | |

**Oharrak** Observaciones ..........

Nagore Sarasola Otermin
Idazkari nagusia

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Nagore Sarasola Otermin (02/05/2025 11:07 CEST), Eneko Goia Laso (02/05/2025 11:26 CEST)
Miren Nekane Arzallus Iturriza (02/05/2025 11:35 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : OIU8-5AQD-V3HA-O6VS